

IRUZUR HISTORIKO BAT

Gaur egun, askotan ez dugu jakiten zer den egia eta zer gezurra. Egin-eginean ere, komunikabideek eta edozein gezur egiaz jantzita eskaintzen baitigute. Datu historikoak ere maiz desitxuratzen dira. Hori horrela, inoiz baino zuhurrago jokatu beharra dugu. Sarritan, baina, egia apropos isildu edota desitxuratzen da. Mezu konkretua ezarri nahirik, mezu horren zertzeladak komenentziaren arabera jantzen dira, entzuleak nahiz irakurleak benetako egiaren berririk jaso ez dezan. Gezur edota erdi-gezur horiek, gainera, hartzailea konturatu ere egin gabe zabaltzen dira. Hori ikusi izan dut aurten bertan hurbiletik bizi izan dudak gertakari batean. Uda honetan, Errioxako Naiera (altzarien hiria) inguruetan egun batzuk egiten izatean, bertan aurkitzen diren Nafarroako erregeen hilobiak beste behin bisitatzea gogoratu zitzaigun. Herrira heltzean izugarrizko iragarkiak aurkitu genituen hilobiak aurkitzen diren "Erregeen Andre Maria" monasterioan egiten ari ziren erakusketa historiko nagusia ikustera joateko gonbitea eginez. Horrela, bada, abagune hori erabiltzea erabaki genuen bertara sartzeko sarrera ordaindu beharra izan arren.

1.- Datuak historikoak desitxuratzen

Egia esan, erakusketa oso egokiro eta txukun prestatua zuten. Aparteko ahaleginak egin dituzte eta normalean ikusi izaten

ez diren zenbait agiri zahar -urrutiko artxibategietan ongi gorde-ta egon ohi baitira- hurbiletik ikusteko aukera eskaini ere bai. Honelako erakusketetan gertatu ohi denez, gida-liburuxka bat ere eskaintzen dizute sarrera ordaintzerakoan, bazterrak ikusi ala, bertako ikustekoak, berri zehatzak aurrez aurre begien bistan izanik, hobeki ulertzeko eta gozatzeko. Nire harridura ez zuen sortu gida-liburuxka hori euskaraz ez egoteak (Errioxan ez baita euskara ofiziala ezta kontuan hartzeko hizkuntza ere), bertan eskaintzen zen informazioa hain deformatua izateak baino. Egia esan, ez dakit nola inork ez duen salaketarik egin lehenago, batez ere hain nafartar sutsuak diren Nafarroako Gobernuko agintariek. Erakusketa horren helburu nagusia “*Errioxa, Lurralde irekia. Naiara Erdi Aroko ondare*” aditzera ematea izan da, non-bait. Horretarako, gainera, azalpenetan Agustin Santuaren *Civitas Dei* ospetsua aipatzen zen, monasterioek garai haietan kultura eta erlijio alorrean izandako eragina gogora ekartzeko asmoz. Bertan aurkitzen diren hilobiak aurkezterakoan hurrengo hau ageri zaigu gida-liburuxka horretan hitzez hitz:



Naiara



Naiarako Santa Maria

“Panteón de los Infantes” *“En esta capilla se hallan trece sepulturas de hijos de reyes. El Panteón de los infantes propone dos miradas sobre la conciencia de la propia muerte (memento mori); la del medievo y la contemporánea. El Sepulcro de Doña Blanca se encuentra en el centro de esta visión. Esposa del rey Sancho “El Deseado”, según cuentan las crónicas “esclarecida reina” y “mujer santa y valerosa”, murió a los dieciocho años al dar a luz al que llegaría a ser Alfonso VIII de Castilla.*



Panteón Real. *“El Panteón de los Reyes alberga sepulcros de dos dinastías: la de Sancho Garcés II Abarca (desde el año 923 hasta 1076) y la de García Ramírez “El Restaurador” (1135-1243). Aquí están enterrados los principales protagonistas de los reinos hispánicos medievales, incluidos los fundadores del Monasterio, el monarca García Sánchez III -rey de Nájera- y su esposa Estefanía de Foix. “La sillería del Coro de Santa*



Nafarroako Blanca-ren hilobia Naiarako Santa Marian

María se construyó durante los últimos años del siglo XV y primeros del XVI. En sus tallas se mezcla el gótico flamígero, dominante en la época de los Reyes Católicos, con el plateresco y renacentista. En el respaldo de la silla abacial está representado el rey García Sánchez III, fundador del monasterio”.

Beste hainbeste, garai haietako jauntxoak aipatzerakoan, Espainiarekin nolabaiteko harremanak izan zituztenak gogora ekarriz, eta gainerakoei buruzko datuak alde batera utziz.

“Doña Mencía, hija de Lope Díaz de Haro, señor de Vizcaya, y de Urraca, hermana de Fernando III, fue reina de Portugal”. “Doña Toda Pérez de Azagra, segunda esposa de Diego

López de Haro -señor de Vizcaya y magnate nobiliario que destacó en la batalla de las Navas de Tolosa- está enterrada en Santa María junto a su esposo”.

Antza denez Naierako monasterioan aurkitzen diren hilobietan bertako erregeak (Sánchez III -rey de Nájera-) daude hi-



Naiarako Andre Maria



Santa Mariako Klaustroa

lobiratuta, hiri horren inguruan edo menpean erresuma aske handi bat izan zela edo aditzera emanek. Behin ere ez da aipatzen Nafarroako Erresumarik ezta erregerik. Monasterio horretako klaustroan hilobiratuta dagoen Bizkaiko jaunari buruz ere ezer gutxi esaten da. Bestetara jokutzen da, berehala ikusiko dugunez, Gaztelarekin zerikusirik izan zuten pertsonaien kasuetan. Kasualitate hutsez, ote? Esan bezala, aparteko ahalegina egiten da Naiera eta Gaztelako (Espainia handiaren isla modura hartuta) erregeen arteko loturak sendotzen eta bisitariari gogorarazten, hari mehez eginiko loturak baldin badira ere (adibidez elizako obretarako dirulaguntza eman zuela eta Espainiako Karlos I.a aipatzea), Gaztelak Naierarekin izandako harremanak behin eta berriro errepikatuz. Jarraian dituzu guzti horren adibide garbiak:

“Aquí están enterrados los principales protagonistas de los reinos hispánicos”; “murió a los dieciocho años al dar a luz al que llegaría a ser Alfonso VIII de Castilla; “dominante en la época de los reyes católicos”; “1270 sabemos que Alfonso X afirmó haber recibido unos libros de “lectura antigua”; “A sus pies se encuentra la portentosa puerta del emperador Carlos I”; “el retablo se remata con el escudo del emperador Carlos I de España y V de Alemania”; “de Urraca, hermana de Fernando III”; “que destacó en la batalla de las Navas de Tolosa”

2.- Benetako datu historikoak:

Hori horrela labur baldin bada ere gogora ekarri behar ditugu, hilobi horietan aipatzen diren pertsonaia historikoei buruzko datu batzuk. Luze jarduteko lekurik ez eta hiztegi entziklopedikotik (Elkar, 2003) jasoko ditut. Honelako hauek irakur ditzakegu:

Blanka Nafarroakoa. Pertsonaia historiko nafarra (? - 1156) Nafarroako Gartzia V.a Berrezarlearen alaba eta Antso VI.a jakitunaren arreba, Gaztelako Alfontso VII.aren seme An-




Gartzia III.a Santxez-en hilobia

tso III.arekin ezkondu eta Gaztelako erregina izan zen (1151-56), baina lehen semeaz, Alfontso VIII.a izango zenaz, erditzean hil zen. Naiarako monasterioan ehortzi zuten eta erregina izatera iritsi ez bazen ere, Antso III.ak "Gaztelako erregina" titulua ezarrarazi zuen haren hilobiko lauzan". **"Antso II.a Gartzes Abarka.** (? -994). Iruñeko VI. erregea eta Aragoiko erregea (970-94), Gartzia I.a Santxezen eta Andregoto Galindezen semea. Gurasoak bizirik egon arren eta adin txikikoa izan arren, Aragoiko konderrria gobernatu zuen; lehenbizi aitaren eta Fortun Ximenezen babespean eta gero, adinez nagusi izandakoan, berak bakarrik. Kaliferriaren zabalkunde politikoaren kontrako izaki, oso harreman txarrak izan zituen hasieran musulmanekin; gaztelau eta leondarren laguntzarekin Gormazko setioan (975) eta ondoren Ruedakoan parte hartu zuen, baina garaitu egin zituzten (981). Ordutik Almantzorrekina harreman onak izaten saiatu zen: opariak egin; islamera aldatu eta alaba Abda, Almanzorrekina ezkondu zuen. Horrela Nafarroako erresuma musulmanen erasotik babestea lortu zuen. Egungo Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Pirinioetako Iparraldeko zenbait lurralde ere menpean izan zituen (987). Urraka Fernandezekin ezkondu zen eta hiru seme izan zituen: Gartzia II.a Santxez, Ramiro I.a eta Gontzalo". **Gartzia III.a Santxez Naiarakoa** (? -Atapurca, 1054). Iruñeko IX. erregea (1035-54). Antxo III.a Gartzes Nagusia eta Muniaren semea. Antso III.a hil zenean aitaren lurrak banantu zituzten eta Nafarroa Gartzia III.arentzat izan zen. Gaztelako kondearen alaba Estefaniarekin ezkondu (1038) eta zortzi seme-alaba izan zituzten:..."

Gartzia IV.a Ramirez Berrezarlea (? - Lorka, 1150). Iruñeko XIV. erregea (1134-50), Ramirez Santxez eta Kristina Rodriguez de Vivarren semea. Aragoiko Alfontso I.a Borrokalaria ondorengorik gabe hil zenean, Nafarroa eta Aragoiko erresumak banandu egin ziren eta nafarrek Gartzia IV.a Ramirez Berrezarlea aukeratu zuten errege. Margarita Perchekoarekin ezkondu eta Margarita, Blanca eta Antso VI.a Jakituna seme-

alabak izan zituzten. Portugalgo Alfontso I. arekin bat eginik, Gaztelako Alfontso VI. ari aurre egin zion Tuterako batailan (1137). Bigarren aldiz ezkondu zen Urrakarekin eta Santxa alaba izan zuten. **Foix**ko dinastia. Nafarroako errege-erreginen dinastia (XV-XVI.m.). Joan II.a Trastamarakoa bildakoan, Leonor erregina Gaston IV.a Foixko kondearekin ezkondu eta Foixko dinastiak hartu zuen Nafarroako agintea. Dinastia honetan, Frantziako Febo (1479-83) eta Katalinak (1483-1513) izan zuten Nafarroako erregetza. (...) Gaston IV.a Foixko kondea Nafarroako Leonor I. arekin ezkondu zenean Foix eta Biarnoko etxea Nafarroako erresumarekin batuta geratu zen, eta bertako kideak (Frantziako Febo lehenik eta honen arreba Katalina ondoren) Nafarroako erresumako errege eta erregina izan ziren. Fernando Katolikoak Nafarroa konkistatu zuenean (1512), Nafarroa Behereak Foixko konderriaren barruan jarraitu zuen, Enrike III.ak Frantziako koroara bildu zuen arte (1607). **Navas de Tolosako bataila**. Alfontso VIII.a Gaztelakoaren, Pedro II.a Aragoikoaren eta Antso VII.a Azkarra Nafarroakoaren armadek almohadeen armada garaitu zuten bataila (Jaén, 1212-VII-16). Kristauen garaipenaren ondorioz, almohadeek eten egin zituzten erasoak Iberiar penintsulako erresuma kristauen lurraldeetan. Benetan gertatutako eta alegia nabasturik dabilta, baina, dirudienez, Nafarroako armarriko kateak bataila hartan lortuak dira. Itxuraz, kalifaren denda inguruko hesiaren kateak hautsi zituzten nafarrek eta kalifak ihes egin behar izan zuen.

Aipaturiko esku-liburuxkak Naiarako errege deitzen duen **Gartzia III.a Santxez** horren aita izan zen Antxo III.a Gartzes Nagusia (Handia). Berari buruz, besteak beste, honakoa dio aipaturiko entziklopediak: **“Antxo III.a Gartzes Nagusia** (-992-1035). Iruñeko VIII. erregea (1000-35), Gartzia II.a Santxez Dardartiaren eta Ximena Fernandezen semea Nafarroako erresumako errege nagusia, “res Dei gratzia” tituluaren sortzailea. 1010ean Gaztelako konde zen Gartzia II.a Santxezen alabarekin ezkondu zen, Gaztelarekin harremanak sendotuz.



Lopez Harokoaren hilobia

Haren erregealdia bi gertakari nagusik nabarmentzen dute: erresumaren barne-antolaketak (monasterioetan klunitarren erreforma ezarri zuen) eta erresumaren zabalpenak (Sobrarbe berreskuratu, Ribagortzaz jabetu eta euskal mintzaira zuten lurralde guztieara zabaldu nahi izan zuen agintea)..."

Errege ospetsu honen bizitzari buruzko PASTORALA izan genuen iaz. Pastoral horretan, Nafarroako erregeen gorabehera historikoen laburpena egiterakoan, errege hau izan zela bere gortea Naiaran jarri zuena diosku. Hortik hartu zuen, nonbait, bere semeak "Naiarako errege" titulua. Honako hau dator pastoral horretan:

Eiiskal errege güzietarik handiena dügü Antso Nagusia. 992an sortürrik apentziala, Antso Abarka famatüaren arrase-me da. Hamabi urteetan Gartzia II.a Santxez aita zenaren segida bartü behar dü, bi emazte zügünez lagüntürrik: ama dü bata, Xemena, amama beste, Urraka. Leiren, Iruñen eta Naiaran handitzen da. Oibarko andere Antsa gaztearekin seme bat ükanen du, Ramiro, Aragoiko lehen errege dateana. Bena 1010an, beste andere batekin ezkontü behar dü politikaz: hura da Munia, Gaztelako jaunaren alaba. Eskontza irusa date balere. Hiru seme Ñukenen dütië Antsok eta Muniak. Bere kortea Naiaran ezarten dü Antsok, Ebroz baraitiko Errioxan."

Ikusten denez, argi dago Naiarako hilobietan aurkitzen diren pertsonaiak lotura estua dutela Nafarroako erresumarekin, eta ezinbestekoa dela azalpenak ematerakoan Nafarroako erresuma hori ere aipatzea. Gaztelako erregeak gogora ekarri nahi izateak ezin du, inolaz ere, monasterioaren sortzaile izan ziren Nafarroako erregeak baztertzerik ekarri.

3.- Adi egon beharra

Maiz honela idazten da historia, daturik nabarmenenak isilduz edota, oraindik txarragoa dena, gezurrik handienak egiaztat salduz. Naiarako erakusketa ikusi izan duten pertsonak



atunfio
 aquels. &
 uolumc
 Inqatn
 muneā
 Lēmo
 rēmdun
 nullo at
 etua pa
 uscende
 to solim
 unae pi
 tana sel
 ergolim
 aur uol
 faunaf

(estatukoek nahiz atzerritarrek) bertan erresuma handi bat -hi-lobietan errege-erregina ospetsuak ageri direlako- egon zela uste izango dute, nola sortu zen, nola garatu eta nola desagertu erresuma hori jakin gabe. Harritzekoa da, benetan, hain pertsonaia ospetsuak irekiera-egunean bertan izanik horretaz ezer inork ezer ez esatea edo aipatzeca. Arriskua, hain zuzen ere, ezjakintasun horretan datza. Begira, bestela, erakusketa horrek gure artean izan duen oihartzuna adibidetzat. Horrela, DEIA egunkarian, 2005eko irailaren hiruan, **“aTc -atonoconfi-Go”** eranskinean orrialde handi bi eskaintzen dizkio Naierako erakusketa horri, honela hasten delarik aurkezpena:

“Desde el pasado mes de mayo, la localidad riojana de Nájera se ha convertido en la sede de la segunda exposición de “La Rioja Tierra Abierta”, que en esta ocasión lleva por lema “Nájera Legado Medieval”. El escenario escogido no puede ser mejor; esa joya arquitectónica que es la iglesia y monasterio de Santa María la Real. De esta forma Nájera sustituye a Calahorra, en cuya Catedral se realizó hace unos años una exposición similar...”

Jarraian, ea hitzez hitz, erakusketa horretarako prestatutako aipatu dugun liburuxka horretan jasotzen diren akats historikoak (gezurrak ez esateagatik) jaso eta eskaintzen ditu. Harritzekoa, benetan, “teorian” abertzaleen egunerokoa den horretan horrelako arduragabekeriak jardutea. Horra hor, bertara hurbiltzeko aukerarik izan ez duten euskaldunei eskaintzen dien historia desitxuratua.

Argi dago estatuaren eta agintari zentralisten hatzaparrak luzeak eta zorrotzak direla. Ez dute inolako lotsarik bazterrak iruzurrez betetzeko. Alabaina, gezurretan ibiltze hori ez dut uste onerako izan dutenik. Egia esan, abagune ezin hobearen zuten Nafarroako erresumaren eta Gaztelakoaren artean izandako harremanak eta beste zenbait gauza aditzera emateko. Alde horretatik begiratuta, behar bada, gaitzerdi!



Naiarako Andre Maria

Historiaren hodi luzeko urak beste iturri batzuetatik jasotzen saiatu izan garenok badugu kexatzeko ziorik. Baina, era berean, kontuan izan behar dugu, baita ere, "paperean" idatzita eskura etortzen zaizkigun hainbat eta hainbat berri ez direla urregorritzkoak...

Hezkuntza Ministeriotik eskola-testuak eta bateratu beharra dagoela entzuten ari garen garai hauetan, adi eta zuhur jardun behar dugu esaera zaharraren haritik "erbikiaren ordezkaria" sal ez diezaguten. Lehenago ere, behin baino sarriagotan, entzunak gara sasi-jakintsu horien ahotik "euskara" gaztelaniaren dialekto hutsa dela eta horrelako astakeriarik ugari...

Hori horrela, bestalde, benetan kezagarria deritzat, esaterako, Euskal Herriko ikastetxe gehietan gure herritik kanpoko ikuspegiz sortutako eskola-liburuak erabiltzeari. Gure herriaren historia desitxuratzen baldin bada, eta gure gazteek gure herriaren historia iturri garbietatik jasotzeko aukerarik izaten ez badute etorkizun iluna izango dugu, seguruenik.

4.- Eranskin interesgarri bat.

Gorago aipatu dut gortea Naieran jarri zuen Nafarroako lehen erregea Antso Handia izan zela, eta bertakoa zelako deitu zela "Naierako errege" Gartzia III.a Santxez. Blanka erreginari hilobia ere aipatu dugu. Gogora ekarri dugu, baita ere, Antso Handiaren asmoa Euskal Herri osoa batzea izan zela. Hori horrela, iaz Maulen antzeztu zen pastoraleko zenbait atal ere jaso nahi izan ditu, historia luze eta eder horren ikuspegi zabalagoa eskaintzeko bide direlakoan. Hasierako eta amaierako "*peredikuak*" eta Antxo Handiari eskainitako hiru kantak (J.L. Davant jaunaren hitzak eta Jean Bordaxar jaunaren ahaideak) jaso eta eskaini nahi izan ditu hemen zuen gozamenerako:

LEHEN PEREDIKÜA

1. *Honki jin ziradeala,
popülü maitagarria
Historia baten mengoan,
oste handitan jarria*
2. *Düala mila urte xüxen,
bizi zen Antso Handia
Eüskaldünek üken dütügün,
erregeetan haütüa.*
3. *Aita gaztean galdürik,
goizik errege sartü zen
Haatik amak eta amamak
züen abolküz lagüntzen.*
4. *Lehenik maitatü züan
Oibarko Antsa gaztea
Aragoiko jaun izanen zen,
Ramiro baien semea.*
5. *Gero politika legez,
beste batekin ezkontü
Gaztelako jaun konteren,
alaba züan esposatü*
6. *Aitaren ganik jiniko,
erresuma züan hedatü
Aragoi eta Gaztela,
hegalpean zütüan hartü*
7. *Iparraldeko haurrideekin
barreman tinkak etxekiz
Gaskonia lagüntü züan
haren etsaiak ebakiz.*

8. *Erresuma zainkatürrik,
müsülmanen armadatik
Bakea finkatü züan
haien bürüzagiekin.*

9. *Adinik hoberrenean,
sübitoki zentürrik
Erresuma ützi züan
baurrek bertan zatitürrik.*

10. *Holaz behera basi zen,
Eüskaldünen erresuma
Bena beti da bizirik
Antsoren oritzapena.*

ANTSO ERREGERI (I)

1. *Iruñeko errege, Antso Handiena
Gorazarre batüa zuri nahiz egin
Eüskal Herri güzia berriz da zurekin
Nafarroa garaia prefosta lehena.*

2. *Leirerik horra zaizü agur zabarrena
Otoitz eta hilarriz, hiru izenekin
Oñak eta Lizarrak bardin züen ekin
Orriako ama düzü balere gorena.*

3. *Olite-Herriberrin kantore lamiña
Eta zuri kantari Blanka erregiña
Agur deizü harekin Usuako damak
Agur deizü harekin Usuako damak.*

4. *Agurzale dütüzü hiri, baserriak
Xabier, Amaiur eta jauregi berriak
Bakea goza dezan Antsoren arimak
Bakea goza dezan Antsoren arimak.*

ANTSO ERREGERI (II)

1. *Lapurdi Herriaren sorzalea zira
Baskoniako lehoak agur deizü Jauna
Nafar itsas portüa beitago Baiona
Iruñekin badabil anai baten gisa.*
2. *Xiberoa Herria zure hegalkan
Halaber agertürük ipar Baskonian
Frisatez ari zaizü, Antso Nagusia
Frisatez ari zaizü, Antso Nagusia*
3. *Bortüen iparretik, oi Baxenabarre
Nafarroa hau ere, San Frantsesen aita
Erreinü zaharrari fidel egon beita
Antso Handia zuri, Jatsun gorazarre.*
4. *Iparralde güzia Nafarra beitügü
Egin dezagün berriz biek esküz-eskü
Eta kanta lehenik Antso Nagusia
Frisatez ari zaizü, Antso Nagusia.*

ANTSO ERREGERI (III)

1. *Zure mentetik hürrün, Durango aldea
Nafarra zen erregez denbora lüzean
Bai eta baratago, mügarik ezean
Bizkaiak opa deizü bere ühaltea.*
2. *Gipuzkoa hüllana, Oiaso baldea
Nafarroaren bizki Aralar ertzean
Balean zure Kain, eta Abel bestean
Antsoren ohoretan ützültzen ordea.*
3. *Araba ahizpa berriz eüskaldüna
Antso Handia düzü beliko zaldüna*

*Merexi düan bezala kantatzen deiozü
Merexi düan bezala kantatzen deiozü*

*4. Sartaldeko Eüskadi, beste biak ikus
Ekialdeala bibotza esker honez ützü
Antsoz oroitzean da gure batarzüna
Antsoz oroitzean da gure batarzüna
Aragoi eta Gaztela
Haren begalak zirela
Euskal zerüan zoin ederra den
arranoaren sautrela!*

AZKEN PEREDIKÜA

*1. Lüze üdüri ziküzü
mila urteko denbora
Hargatik ontsa pentsatüz
hamar mente baizik ez da.*

*2. Ebün urteko jenteak,
hadira han edo heben
Eta galtegin dezaegün
bizia lüze ote den.*

*3. Antsoren denboretarik,
jentea jente da beti
Ez uste den bezain gaixto,
bena denak bizi nahi.*

*4. Gure lürra biribil da
eta ez hainen zabala
Hortan eden behar dügü,
aisa pizten beita gerla.*

*5. Antsoren denboretan,
bizizale gütiago zen
Bena janaria xühür,
eta nazionezik ez zen.*

6. *Errege güziak bezala,
Antso etxeko jaun bat zen
Erresuma züan etxalte,
horren bedatzen ari zen.*

7. *Ber denboran kiristi zen,
müsülmana züan etsai
Horren armadatik lürra,
eta jentea zaintü nahi.*

8. *Hargatikan ordükotzat,
gerla güti züan egin
Diplomaziaren bidez,
baketü zen arabekin.*

9. *Ordüinko eüskaldun güziak,
erreuman bildü zütüan
Arrapizten zaigü xedea,
Monzon baten üngürüan.*

10. *Dena dela dügün laüda,
eüskal errege handia
Eüskaldünek üken dügün
lehendakari haütüa.*

11. *Horri esker algarrekin,
igande goxoa dügü
Zuri ere püblük bona,
esker mila zor deizügü*

Patxi Uribarren Leturiaga